

The background is a grey, cracked surface with various faint graffiti elements. At the top center, there is a white outline of a person's head and shoulders. To the left, there is a red drawing of a spider. In the center, a yellow horizontal bar is positioned above the author's name. Below the author's name, the title is written in a dark teal color. A pencil is positioned vertically in the lower half of the cover, with its eraser on the left and its tip pointing upwards. The pencil is partially obscured by a shadow on the left. Faint yellow and pink graffiti is visible in the background, including the word 'KES' and some illegible scribbles.

JOSEBA
SARRIONANDIA

kartzelako poemak

Kartzelako poemak

JOSEBA SARRIONANDIA

 **Susasa** poesia

Liburu honen salneurria: 3,54 €.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 1992 Joseba Sarrionandia

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 1992ko urria

Edizio berri hau: 2011ko urria

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.com

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

EZIKUSIA EGIN OTE DAKIOKE ITSASOARI?

Ezikusia egin ote dakioke itsasoari? Haren aditzerarik ez baduzu, denik ere ez badakizu, agian; bestela nekez. Liburu honetan sartzen den irakurlea itsasoan murgilduko da. Aspaldiko itsaso berritu batean.

Zilegi bekit itsasoaren metafora hitzaurre honekin hasteko, itsasoa baita, aurrerago gogoratuko dugunez, Joseba Sarrionandiak hemen usuen darabiltzan sinbolo eta motiboetako bat.

Duela 19 urte, 1992ko urrian kaleratu zen estreina *Kartzelako poemak*, beste koska nabari bat ezarriz euskal poesian. Kartzelako poemak dira, ez besterik. Egilea preso egon zen aldian idatzitako poema sorta mardula du ardatza, eta ihes saioa arrakastaz burutu ondoren espetxeari buruz eta han utzitakoez idatzitako beste zenbait poemarekin osatzen da bilduma. Batasun tematiko harrigarrian.

2011ko edizio honi gaurko begia eta eskua ezarri dizkio poetak, eguneratu egin dira tes-

tuak eta orain arte argitaratu gabeko sei poema datoz osoa zena osatzera.

Lehen lerrotik aipatu nahi izan dut itsasoa, liburuaren zabaltasun eta sakontasun anitza adierazteko asmoz aurrena —unibertso hondar gabe bat—, eta hurrena, berriz, bide ematen didalako hainbat alderdi ikuskatu eta haietaz hitz egiteko.

*Itsasoak badu memoria,
badu beste itsasoen berri*

Kate luze baten hondarrek, harri boleak eta haitzek dakarte liburu hau datorren hegira. Asko dira antzeman daitezkeen tradizio poetikoak, iturri ugariatik bildutakoak dira entzun daitezkeen oihartzunak.

Batetik, *Kartzelako poemak* espetxeko euskal literaturaren tradizio aspaldikoan eta berriagoan txertatzen da, baina, bestetik, munduko literaturaren ur handietan ere txairo dabilelakoan nago.

Badakigu ziega euskal literaturaren mintegi emankorra izan dena poesia idatziaren hastape-

netik, eta badakigu joera horretan ez dela erabateko etenik gertatu egundaino. Kartzela hor egon da beti, euskaldunarentzat abegikor, sartzeko ateak zabalik. Eta, esan gabe doa, gaur egun ere badirela idazle euskaldunak preso.

Giltzapean edo giltzapeaz ale zoragarriak utzi zizkiguten Etxeparek, Amenduxek, Iztuetak, Bordaxurik, Etxahunek... zeinek bere mendean, eta tradizio klasiko horren oihartzunek isla badute orri hauetan. Galerianoaren edo urkamendiko bertsokera, edo erromantzeen irudi eta sentimenduen mundua oroitarazten duen lirikotasun eta epika mindua ere ageri da. Maite-mina, oroimina, herrimina kantuz eman beste aukerarik ez dagoela dirudi batzuetan, etxeko musika dakarte bertsoen doinuek, koplen lelo errepikakorrek haurtzaro mitikora garamatzate, edo urrunagora oraindik.

Baina tradizio modernoaz ere ari garenez Xabier Amurizak edo Gotzon Alemanek ezarrirako lehen urrats haien oinarri garrantzitsuari esker, Joseba Sarrionandiaren lan hau erreferente gotorra da euskal poesia garaikidean eta espetxeko literaturan. Gainera, liburu honek espe-

txeko literaturako lan zeharo nabarmenak argitaratu dituzten Mikel Iburguren, Xabier Izaga, Urtzi Zubizarreta edo Mikel Etxaburu poeten ekinari bidea zabaldu zienik ezin uka.

Hala ere, esan dugu, gure poesiaren putzua ez da etxeko harraskan errenditzen, munduari begira bizi da, eta handik eta hemendik ito izan du egarria. Munduan barrena eta denboran zehar izan diren hamaika poesia moldeak isla gardena daukate testuotan: klasizismo latinoaren ukituak sumatuko ditugu, elezahar eta tradizio arturikoaren bristadak han-hemen, Txinako poesiaren edo Japoniako haikuen lilurak joko gaitu deblauki...

Gauzak multzotan ipintzeak ulerbideak errazten dituelako ustean, hesiak jarri eta itsasoak lotzea maite dugu. Horrenbestez, arestian aipatutakoez gain badago beste eremu bat ere, liburu honentzat neurri-neurrira egina bezala dakusaguna. Sailkatzen hasita, *Kartzelako poemak* munduko kartzelako poesiaren itsaso zabaLEAN marraztutako uberetako bat da. Hori aipatu orduko, langintza horretan Iurretakoaren kideko eginda, idazle saila datorkit gogora: Oscar

Wilde, Paul Verlaine, Miguel Hernandez, Jean Cayrol, Ho Chi Minh, Roque Dalton, Wole Soyinka, Mahmud Darwish, Gloria Arenas Agis... eta horien arteko itsasketan.

Itsasoak zenbat aldarte hainbat ahots

Kantatzen duenaren ederrari ez doakio atzetik poetaren bizitza. Ideal erromantikoaren eta punk kulturaren zordun ere izan daiteke gorabehera hori nire iritzian. Banaezinak dira poetaren obra eta bizitza. Denok amestu dugu geure Itaka inoiz, baina batzuk itsasoak aurrera abiatu ziren ausarki utopiaren bila. Eta preso erori den poetarentzat poesia libre izaten jarraitzeko zinezko modu bat da.

Sarrionandiak kartzelako egunerokotasun hertsagarritik abiatuta idazten du. Esperientzia pertsonaletik hitz egiten hasi, norbere mugak gainditu eta munduarentzat mezu bat ondu du. Ezin dira bereizi deskripzio objektiboak eta ondorio subjektiboak, gorputz bereko hezurra eta mamia dira nola sinboloak hala deskribapenak. Unean-unean bizi dituenak (isolamendua, nos-

talgia, zaindaritza zorrotza, gose grebak...) transzenditzeko gaitasun miragarriak, poetaren hitzak esperientzia humano unibertsalaren ondarearekin uztartzera daramatza. Hala, poeta, tribuko aztia ez bada, tribuaren eledun bilakatzeko da gutxienik. Hunkitzen gaituzten, ulertzen ditugun irudiak eta egoerak hautatzen daki, gutaz mintzo diren sinboloetan islatuta ageri gara, gure egiak, gure ezinak, gure grinak...Tarte batez haren ahotik hartzen du arnasa itsasoak.

Urondoan dira zelaiak eta malkarrak

Espetxea dugu poema gehienen gertaleku, sasia bestela. Eta ziega eta giltzapeko mundua bizitzaren ifrentzu moduan azaltzen dira. Bizitzaren karelean ageri da kartzela, ekidin gaitza da elkarren kontrako talka. Borroka baten parte bilakatu da eguneroko gauza txikienen mekanika: irakurtzea, idaztea, lagun artea, bisitak hartzea...

Sokatira gordin horretan eusteko, ordea, kementa eta gertukoan babesaz gainera, umorea eta bizi-poza gauza oso beharrak dira. *Carpe*

diem delakoa, egunean egunekoari ekiteko aldarria, ez da ahoberokeria bizitzaren alargun bilakatu nahi duten presoarentzat.

Harritzekoa ere ez da, beraz, dialektikaz baliatzea. Aurrez aurre dauden indarrak, sentimendu kontrajarriak eta kontraste jokoak erabili ditu egileak, nahiaren eta ezinaren, errealitatearen eta desioaren arteko leizea nabarmentzeko. Kultismoa eta herri-tradizioa, etxeko su-bazterra eta kosmopolitismoa eskutik helduta dabilta.

Eta mezuen aldetik ere halatsu. Maitasun eta gogoeta barnekoi eta partikularrenekin batera, borroka kolektibo bati loturikoak aurkituko ditugu. Ez gara bakarrik ari, presoak zerbait handiagoren parte ikusten du bere burua, eta hori onartzen bada, erresistentziaren baloreak transmititzeak garrantzi berezia hartzen du. Borroka militantearen on-gaitzei erreparatzeak, berriz, hausnarketa sakonagoentzat bidea ematen du: poesiaren mugak zein diren, eustearen garrantzia, etika iraultzaile baten zerak.

Hari horietatik tiraka, nonahi azaltzen dira gai ezatseginen muturrak (suizidioa, tortura,

borroka moduak...) zintzotasun iraultzailearen mende jarririk. Zehar haizeak bezala borrokaren inguruko kezka etikoak behin eta berriz urratzen du segurantzia erosoan azalean laketzeko arriskua. Inon egiarik bada, egia hori erlatiboa izango da; printzipio sendorik badago, printzipio horiek antidogmatikoak behar dute, jendetasun humano eta zabalean.

Berez kartzelak leku aproposa ematen du estereotipo zurrun edo heroikoetan jausteko, baina presoaren irudia eta bere sentimenduak pertsonaren neurri doietara ekartzeko ahalegin kontzientea dago hemen.

Darabiltzan gaietan eta emandako erantzunetan belaunaldi baten erretratu gardena begitnantzen zait liburu hau poema askotan: hartutako deliberoak, egindako juzkuak, asmatu eta erratatuko bideak. Zurrunbiloak, ur loak...

Ortziko formak erakusten ditu ur gainak

Darabilen tresneria estilistikoarekin maisuki jokutzen daki Sarrionandiak, beti ere emozio estetikoaren pentzura. Planoen, irudien edo esa-

nahien kontrasteen bitartez, metafora eta konparazio joko joriak lagun hartuta, ebokaziorako eta enpatiarako gaitasun ikaragarria erakusten du. Pentsamenduaren sakonak, esanahiaren askotarikoak, kontzeptu abstraktu eta deskribapen xeheenen arteko gurutzaketak liluramendu halako batean harrapatzen du askotan irakurlea.

Kontzeptu edo ideia nagusiak definitzen direnean, bigarren zentzu bat daukate ia beti, sinboloaren, alegoriaren edo parabolaren estalkiaren baitan emanak. Berdin dio denboraz ari garen, kartzelaz, urtaroez, hegaztiaz edo beste zernahiri buruz. Hori bai, behin definizio, metafora, sententzia edo esamolde horien giltzaz jabetuz gero, hunkidura eta plazer estetikoaren ukaldia saihesten zaila da.

Paradoxa bikainek gogoetarako deia eta barre-iritzia eragin ditzakete gudan, biak batera. Kartzelaren izatasunaren irudia osatze aldera, espexeko fauna edo fantasiak sortutako ikuskari edo irudipenak ez dira bazterrera uztekoak. Poemen izenburuek, bestalde, egiteko argiga-

rria daukate, batzuetan amu eta inoiz aingura, beti ematen baitute gaiaren arrasto garbia.

Denbora eta itsasoa dira liburuaren ardatz nagusi bi. Maila errealean edo maila sinbolikoan izan, bi horien artean txirikorda daiteke ederki asko gure bizitza.

Funtsean denboraren makinak baino beste ezer bagaren ez dakigularik, ez dakioker denborari ezikusia egin. Eta ez dirudi erraza bizi garen gure aldiaren galernatik onik ateratzea inor. Ia ezinbestez gertatzen da maiz *leit motiv* nagusi denbora, kartzelan idatzitako poesian.

Presoari kasik bahituran jarri diote bizitza, eta literatura baliatzen du gauza garrantzitsuak adierazteko. Haurtzaroko argazki bat da aski, denboran barrena txangoa egiteko, historiaren erroak zertan diren ikusarazi eta gaur egun zertara etorri diren jabetu, eta bihar-etzietan zer nolako fruitua eman dezaketen antzemateko. Soziologia poetiko eta afektibo bat.

Egileak, hala irizten dionean, teknika narratiboak poesiaren zerbitzura jartzen daki, tentsio dramatikoa eragiteko hor, sentimenduen klimaxa sortzeko aurrerago. Elementuen metatzeak

edo doi-doi graduatzeak ondorio estetikoak trinkotzea dakarte.

Itsasoa ere nonahi ageri da. Berriaren eta iraunkortasunaren eredu izaki, bidaiaren, borrokaren eta askatasunaren plaza da. Baina sinbolo edo parabola gisa ulertuta, ezin konta ahal-idea iradoki diezazkiguke: nostalgia, memoria, bizitza, kartzela... Hainbeste gauza da itsasoa, hain da zabala, hainbeste dira bere doinuak eta kantuak, hain dator aspalditik eta hain urrunera joateko luzatzen digu eskua... Libertatea eta ekaitza da, itxaropena eta beldurra.

Halako batean, itsasoak berriz ere abiatu ginen puntura ekarriko gaitu, baina, noski, inor ez gara izango hasi gineneko hartan ginenak. Denok ordainduko dugu egin dugun osteragatik geure bahia: onurak, galerak eta, oroz gainetik, eskarmentua esaten zaion hori.

Itsasoa eta denbora kiribilka doaz aitzina, bizitza bezala. Borroka ere ziklikoa da, dena aldi bakoitzean berritu egiten da, hutsetik hasi beharra dago berriz, baina hasiera bakoitza ez da behin baino hasten. Errepika ezintasunak gauzekiko distantzia dakar nahitaez, galera senti-

mendua, eta horiei estu-estu itsatsita zirrikitua ireki nahiko dute nostalgiak eta malenkoniak.

Beti dago, ordea, kartzelako logika eta larderia itsuari ihes egiteko modua etsian amildu gabe. Presoak beste mundu batzuk asma ditzake, bere burua itotzen duen denboratik eta lekutik ateraz. Libertatea dastatzeko eta makur larriei izkin egiteko harrigarritzko lanabes hori, jakina, ez da literatura beste ezer. Hitzen kresal hegalaria.

Itsasoko izaki ez gara

Itzelezko errekurtsio eta erregistro aniztasunarekin jokatu du Joseba Sarrionandiak *Kartzelako poemak* osatzeko. Hala ere, aberastasun eta oparotasun horrek ez dio liburuaren batasunari kalterik ekarri, alderantziz baizik. Bati baino gehiagori erraz sortuko zaio, agian, itsasketa zail eta arriskuz bete baten nabigazio liburua eman digula egileak, bitakora kaiera bat dela azken beltzean poema sorta hau.

Orain ikusita ez zaigu bururatzen ahal, kartzelako poema hauek beste era batera osa zitez-

keenik. Liburu honen nortasunaren marketako bat horixe baita, neurri, tonu, kolore askotasuna, itsasoaren beiratean bezala. Modernitatearen hondarreko ezaugarri iruditzen zaizkit guztiak ere.

Kartzelako poemak aurrena kaleratu zenetik, bestalde, jendarteratze prozesu azkarra nozitu du. Poesia, batzuetan, egia berriak agerrarazteko gai izaten da, eta beste zenbaitetan gure baitan sentimendu berriak sortzea lortzen du. Oso bakan bada ere, inoiz edo behin gerta liteke harri bakar batek jotzea bi txoriok.

Poema hauek zainera egiten dute artez, kartzelaren muina erakusten digute, baina kartzelako ilunbista luzaz gainditzen duten esperientzia humano askoren kriseilu itsugarri dira.

Gainera, liburuko hainbat testu herri honen imajinario kolektiboaren parte bilakatu dira. Izan ere, urteotan musikari askok (Mikel Laboa, Imanol Larzabal, Ruper Ordorika, Mikel Markez, Bittor Aiape, Deabruak Teilatuetan, Dantzut, Naun...) poema hauetara jo izan du, mezuok doinuz betikotu eta herriaren gogo-bihotzetan irarrita lagatzeko.

Klasiko baten aurrean gaude, eta ezer nekez bihurtuko da klasiko, ez bada bere garaiari her-
tsiki lotua sortu. Pertsonaren lana sarritan sa-
siaren edo lizunaren mende ahitzen da denbora-
garrenean. Hala ere, beste zenbait lan denborak
indartu egiten ditu, sendo irauten du, tantai,
tente.

Kartzelak, bestetik, beti dirudi uzkur euskal-
dunekin ahazteko, eta zorionez literaturaren in-
darra ez da suntsitu oraino. Horra gurean, ez
kartzela eta ez poemak ez ahazteko berme bi.

Ez dago jakiterik garaikidetasunaren adina
zein den, noiz iraungitzen den literatur lan bat,
hitza noiz hasten den hingatzen, esanahia edo
edertasuna galtzen. Ezer betiko ez dela onartu-
ta ere, egingo nuke liburu honek guztizko gaur-
kotasuna duela, eta, beharbada, puska baterako
biharkotasuna ere bai. Egungo jendeari esanda-
ko poemak dira.

Bizia itsasoan sortu zela aski kontu onartua
da, baina gu lehorrekoak gara. Harenganako zo-
rra eta maitasuna aitortuagatik ez gatoz itsaso-
tik. Pertsonok itsasoak asmatzeko eta amesteko
gaitasuna garatu dugu ordea.

Liburu honetan itsaso bat daukazu aukeran.
Sartu edo ez, eta sartzeko erak, zeuk hauta.

JOSE LUIS OTAMENDI

KARTZELAKO POEMAK
1980 - 1985

URTE GIROAK ENE BEGIETAN

Estropezu egin eta amildegi
ertzera erori nintzen.

HO CHI MINH

Udaberriko euriteak jasan ezik
ezin udako eguzkiak gozatu,
udako sargorietan erre gabe
ezin udazkeneko orbela zapaldu,
udazkeneko airea urdintzen ezagutu gabe
ezin neguko elurra so egin,
neguko haize hotzak bizi ezik
ezin udaberria loratzen dela sinetsi.
Baina zer axola zaio zigor zeldetan dagoenari
urtaroen aldaketa?

LAU BOST SEI HARRESI

Lau, bost, sei harresi gure inguruan
bihotz bat bestearen barruan bezala.
Euriak zorionari eragindako kantua
laku zaharren batean ito zen,
haizeak ez dakar ezer. Begiratu hegaztien
itzal atzeman ezinak lurrian.
Zer egin dezakegu? Paseatu, urrats
bakoitzean errauts apur bat utziz;
mundua ere geure antzera biratzen da
bere buruaren giltza aurkitu ezinik.

HAU DA NEGUA

Hau da negua—
Loteria saltzaileitsuak
eskuak poltsikoan.
Komentua suak hartu eta
elurtzan barrena
serora guziak korrika.
Gutuna berehala igortzeko
amorante promesa
konplitu gabea.
Neguak ez du Paradisuaren antzik
ez bada lore zurietan.

Txoriak izozturik pausatzen dira
gure baitan.

TORTURA EGUNAK

Espainiar poliziek Euskal Herrian behelaino zatiak ere preso hartzen dituzte infernuaren hamaikagarren zirkuluan gatibatzeko.

Edozer gauzarekin harrapatu duten mutilak lagun torturaturen baten azalpena oroitzen du. Beste batek ez daki zergatik detenitu duten ere,

eta inork ez du, ateetan barrura daramatelarik, heldu den sufrimenduaz kalkulu egokirik egiten.

Zer da hormaren kontra zapaltzen nauen oinaze hau?

galdetuko dio gero mutilak bere buruari. Zer da harria lako hutsune hau? Kolore ubelaren

metafisikari buruzko tratatua izanen da, mintzaira hil batean, borrero itzalen artean.

Honela guti gora behera:

odolak aurpegia borratuko dizu,
hegazti itsuek inguratuko zaituzte,

haragiak abandonatuko zaitu eta hargin
nanoek

zeure gorputzetik erauzitako adreiluz
errautsezko katedrala eraikiko dute,
eta zure bizitza zeure fikzioa izanen da
eternitatearen aspektua den egun bakoitzean.
Materialismo dialektikoaren klasikoetan ez zen
argitzen

gizaki torturatua, modurik indibidualenean,
munduaren

epilogo
bihurtzen dela.

ELURRA BEZAIN ISIL BADATOR ILLUNA

*Nikolas Ormaetxea,
bariazioak*

Isila bezain ilun badator elurra
Elurra bezain ilun badator isila
Isila bezain elur badator iluna
Iluna bezain elur badator isila
Iluna bezain isil badator elurra

MUNDUAK GEZURRA DIYOTSU, BIHOTZA

*Federiko Krutwig,
bariazioak*

Gezurrak mundua diotsu, bihotza
Munduak bihotza diotsu, gezurra
Gezurrak bihotza diotsu, mundua
Bihotzak mundua diotsu, gezurra
Bihotzak gezurra diotsu, mundua

MISTERIO FISKALA

The most profound human sensation
is the sensation of mystery...

ALBERT EINSTEIN

Gaur ailegatu da hurrengo epaiketarako
kondena eskaera: 99 urte.
Jaun trajedun eta serio batek ekarri dit
leitu gabe sinatu dudan
sumarioa.

99 urte? Ministerio fiskalaren asmoak betez
gero
ez naute 2079 urtera arte
hainduko.

Artean mundua aldatuz doa, bihar ia gaur da,
eternitatea karakol lez pasatzen da
eta errebeldeek ere denboraren eta hautsaren
legea obeditzen
dugu.

Denborari utziko diogu gure larrua

tatuaiez estaltzen?

Zer egin, goizero —marinel zaharra bezala—
jakintsuago eta tristeago jaikitzean?

Zer egin hainbeste denbora eta
hain leku gutirekin?

Zein poltsikotan sartu hainbeste
urtetako larderia?

Zer eginen zenuke zuk, baldin eta bat-batean
hilezina zarela abisatuko balizute?

HAU DA UDABERRIA

Hau da udaberria—
Larretik hirira
mitxeleta bat
buztan hozkirri
eta amultsuz
animalia salbaien
larrua eta
kale kantoietako
itsuen loteria billeteak
ukituz
berriztatzen.

Dena kanpoan.
Barruan, leihorik gabeko
begiradak.

TERRITORIO LIBREA

Funtzionarioak zelatan ditugu beti:
bazterretik jarraitzen digute patioan,
atzetik jarraitzen digute komunera,
aurretik jarraitzen digute bisitara,
ateko mirillatik zaintzen gaituzte zeldan
eta gure loa ere zelatatzen dute.
Ezin haiengandik alde egin ez patioan,
ez komunean, ez bisita
kabinan, ez zazpigarren loan.
Euskara da gure territorio
libre bakarra.

Euskaraz solasean hasiz gero
hara hor funtzionario bat berehala
ezkutuka gure ondora datorrela.
Ziur ez duela deus ulertzen,
baina bertan geratzen da zelatan,
espioi filmetako espioiaren moduan.
Dena dela, guk ez diogu euskarazko
lehen ikasgaia ere emanen.
Oharkabea bezala dio gutako batek:

'Emukatup tab kogaid erug naedlakezta
ae neztidnufnok nugud...'

KARTZELAKO GOIZA

Hemen gaude guziak, hormaren kontra,
beti hementxe egondu bagina bezala,
haizeak hautsa altxatu eta egunkariak
airean endredatuz hausten dituelarik,
harresietako guardiek balak arrosarioaren
aleak bailiren kontatzen dituzten artean.
'Gezalak apur-apurka herdoilduko ditu
burdinazko barroteak', dio inork.
Basahate saldo bat doa alturan hegatsez
sokarik luzeenaren lerroa marraztuz.
Gero isil-isilik geratu gara guziak
eta, bat-batean, euria hasi da,
goiz hartan bezala, aspaldian
gutariko bat hil zen goizean bezala.

EPAIKETARAKO BIDAIA

Dicono e odono, e poi
son giu volte...

DANTE ALIGHIERI

Noizean behin Carabanchelera bidaia.
Neguko egunsentian
guardia zibilen metrailetak,
bultzakadak eta,
furgoi berdearen barruan,
hamabi orduko estura
eta gasolio usaina.
Zirrikitu herdoildutik so egin:
Kordobako kotoi biltzaileak,
Jaengo olibadiak,
Despeñaperros amildegiko astigarrak,
La Mancha mahai zabal
abandonatua balitz bezala,
eta Madrid non haur baldresak
zarama gainetan jolasten diren.
Ez dugu neskarik ikusi,

ez udaberri seinalerik.
Esposa estuegiek marka
ubelak utzi dizkigute eskuturretan.
Zakur eta asto argalen bidea egin eta
hurrengo astean deseginen digute berriro,
El Puerto de Santa María
beti gorrira itzultzeko.

BIHOTZ ILUNA

Horma iragan ezinak, bihotz iluna,
zementuzko bertikalak
eta horizontalak, korridore luzeak,
burdinazko ate zarratuak,
behin eta berriroko sarrailak,
etxe errea, etxe hotza.

Urrunegi basahateak lakuetara
hegalak zabalik murgiltzen.

Bihotz iluna: noiz eginen duzu
haien antzera jauzi?

Esperantza altzairuzko orratza da
hamaikagarren atean.

Bihotz iluna: zenbat oilar ito dabil
zure odoleko zirimolan?

Ziegaren esparruan gauez
preso bakoitzak marra bat egiten du.

Horregatik ohi du egunsentiak
bihotz iluneko tigrearen antza.

IPUINA

Behin munduan, asko legez, mutil bat
harrapatu
eta gaztelu handiko ziegarik ilunenean
giltzapetu zuten.

Argi errainu mehe bat sartzen zen bakarrik,
leiho estutik, batzuetan.
Ez didazue sinetsiko, baina iluna ilunen eta
errainua nabarmen zegoen batean
mutila argi errainuaren gainean paratu eta
korrika abiatu zen
kanporantz, eta alde egin zuen desiratzeak
balio duen
lurraldera.

Hura bere errainuarekin ondo bizi izan bazen,
guk ere bila dezagun
geurea.

GALTZETAN GORDETZEKO KOBLAG

Artizarra ortzantzean lehena da argitzen
Saguzar zaharrena oraintxe da esnatzen
Teila gorri horma grisa isilean laztantzen
Zoko beltzen hegaziak gau berria ehuntzen

Hemen gautza ezin irten errautsen gaztelutik
Gaua sare erraldoia gugana abaildurik
Azpian nau gatibatzen tristurari loturik
Hemen natza hau zer denentz adierazi ezinik

Hau izuen gordeleku eta belar hitsena
Hau malkoen katedrala gizaseme hutsena
Hau eremu bezperage biharamun motzena
Hemen datza gorpu bizi herri bat izan zena

Anitz lore sortzen omen urruneko bizira
Kartzelara sartu oro heldua da hobira
Saguzar ehuleen urkabeen hegira
Zelan kulunkatzen garen bi begiez begira

Argi gabe ari nauzu giltzapean koblatan
Oinazea bisitari gogoaren zainetan
Zaindariak paper bila ari dira zeldetan
Erdu eta to zuretzat gorde itzazu galtzetan

EL PALOMAR

‘Cinco minutos’, te dice quien abre y cierra
las
puertas
mientras del patio miras al sol que de claridad
se vuelve
negro.
Se demoran un minuto tus ojos concertándose
con la
luz
hasta reconocer en ese pedazo de cielo una
paloma
que
vuela
como de piedra desprendida de los muros. Te
demoras
un segundo, un tercer
minuto
pensando a dónde va esa parte de las cosas
que
se desprende de las
cosas.

Cuando se abre la puerta: 'Ya pasó el tiempo',
dice
quien vigila y
castiga.
Y andando por el pasillo oscuro hacia la celda
te
demoras
perpetuando todavía ese montón de aire que
a punto ha estado de ser tuyo
por donde pasan volando palomas de piedra
que parecen de
piedra.

El Palomar deitzen zieten presoek Puerto de Santa
Maríako kartzelako zigor-zeldei. Hantxe
idatzi zen testu hau 1983an, gazteleraz.

II. GALDERA

Presoa zelda bazterrean,
bakarrik mintzatzen bezala.
Baina ez. Armiarma bati
galdetu dio: 'Noiz arte?'.
Armiarma, berehala,
zintzilikatu eta
haria luzatuz jaisten da.
Eta badirudi
hari luze hori dela armiarmaren
erantzuna.

III. GALDERA

Leiho zirrikitutik

haizea sartzen.

Zigor-zeldan bakarrik dagoen presoaren
erlojua gelditu egin da.

Denboraren barea!

Leiho alboan hari soil bat

haizearen gora beheraka

mugitzen.

Presoak hariari galdetu dio

ordua.

Hariak, gora eta beheraka, baietz,

baietz, baietz erantzuten du.

IV. GALDERA

Hormako itzal guneetara begiratu eta
irudiak antzematen dira:
tuareg urdinak gameluen gainean,
funanbulu nanoak haritik erortzear,
trabestiak zebrabidea zeharkatzen,
gerlari etruskoa zerraldo.
Eta zer egiten duzu zuk hor, maitea,
eta zergatik,
zergatik desegiten zara
ni hurreratzean?

VII. GALDERA

Jaiki beharko dugu
goizalba delako.

Jakintsuago eta
hagitz tristeago.

Zergatik, zergatik, zergatik,
zergatik negar egin
zeruan izarra bada
itsaso aldetik?

IX. GALDERA

Eta orain, aberria hain urrun
eta hain ezdeusa denean,

funtzionarioek, eta guardia zibilek,
eta harresiek, eta basamortuak
inguraturik,

berrehun egunetik gorako isolamendu
eta bakardadearen ondoren,

zer dela eta oldartzen eta —kanpai
hotsen artean—
okupatzen didate gogoa Maria Lauraren
bular ikaragarriek?

XI. GALDERA

Patioan zehar alde batetik bestera
dabiltzan presoak bezala,
hitzak, ordurik ordu oinez. Kartzelatik
urrundu ahal izango duzue inoiz?

Presoaren hitzak, harresiaren kontra,
tunelera sartzen den trena bezalakoak,
ezintasun guzien kontra, hizkuntzaren kontra.
Noraino helduko zarete?

HAURTZAROKO ERRETRATUA

Aitaita eta amamak ia hirurogei,
haurrak bizpahiru urte ditu.
Gurdi zaharraren ganean eseri dira
fotografoak deiturik.
Aitaita soroko lanak utzi eta alkandora
mahukak luzatuz heldu da.
Amamak, amantala kendu,
gurdi ertzean eseri eta
—kamara seinalatuz— txoriari begiratzeko
diotso altzora jaso duen haurrari.
Larunbat arratsaldea da eta haizeak
intxaur hostoak eraginez
susmo igartezinak zabaltzen ditu
Garaizarren.
Umeak ez du susmatzen
hogeitau urte geroago
kartzelako bisita kabinan elkartuko dela
aitaita eta amamarekin
eta kristalaz bestaldetik erretratu hori
erakutsiko diotela.

EZKUTUKO GUTUNAK

Funtzionarioa gutun mordoarekin heltzean
presoa inguratu
eta eskuetan gutunak banan-banan
kalatxorien antzera zabaltzen
zaizkie.

Funtzionarioak alde zuzenetatik irakurri eta
—euskara debekaturik dago—
zentsuratu ditu: ‘oheratzeko orduan zure
hutsunea
sentitzen dut ene alboan’ / ‘ama gaixorik
dago

medikuak esan digu igual datorren astean
emango diotela alta
ospitalean’ /

‘koadrilan zure zain gaude eta bitartean ez
dugu

gehiago edaten, edo berdin edo
gutiago’ /

‘maisua etorri zait esatera haurrak eskolan
negar egiten duela
batzuetan...’

Horrelako gauzak leitzen ditu funtzionarioak
eta gero presoak, erdaraz baldin
badira.

Baina noizean behin legez kanpoko gutunak
ere
ailegutzen
dira,
ezkutuan sartuak, nori daki zelan, letra xumez
eta euskaraz izkiriatsuak
gehienak.

Gezurra dirudien arren, beste gutunotan ere ez
dator
sekretu
larririk.

Funtzionarioek banaturiko gutunetakoak
bezalako
mezu sinpleak dira
gehienak,

baina 'maite zaitut' eta 'hurrengora arteak' ere
samurragoak dira euskaraz,
eta erdarazkoak ere garbiagoak dira, inork
ikertu edo begiratu ez
dituelako.

Eta helduko dira gutun ezkutuok edo eroriko
dira bidean,
kontrolak eta katxeoak gogorrek
darelako,
baina ez da galduko zentsuratu gabeko
gutunak hartzeko
esperantza.

PRESOEN AMAK

Oroitzen zaitudanean,
ama,
sukaldean egoten zara
mahaia bostentzat atondu,
aulkian eseri
eta leihotik,
kristala lausotzen duen lurrina ezabatu gabe,
neguari begira
eta ni
—badakit—
zeure begien hondoan nagoela.

Patioan solasean eta lagun batek:
'Itolarria sentitzen diat...'

Zer den amaren begian egotea!

GUTUN GALDUAK

Euliek zeldetako
ispilu tipiak zikintzen dituzte.
Egunak galtzen ditugu
oskorriak bere kolore arauak
galtzen dituen bezala.
Harresien bestaldean
etxe batzuk desdefinitzen dira.
Artean, balioen erlatibitateaz ez,
balioen fatalitateaz mintzo gara.
Haizeak bere delirioa arrastatzen du
mundua den eskuizkribu
irakurgaitzaren gainean.
Eta gure gutunak ez dira sekula iristen:
helbideko kaleraino ailegatzean
karteroa, taberna morera sartu,
mozkortu eta
gutun guziak galtzen ditu.

ARMEN KANOIAK

Armen kanoiak euren gorputzen aurka
zuzendurik daudela jakinaren gainean
aitamen baserrietatik irten, aterdiak
zabalik utzi eta badoaz
ibarretan behera, biderik gabean bezala
belarra zapalduz, atramadak saltatuz.
Urratsik gelditu gabe joanen dira beti,
oroimin zaharren bat begietan.
Eta hala suertatuz gero, zergatik hiltzen diren
zehaztu gabe hilko dira, hitz hil
isilekin, herriagatik ez balitz, zerbaitengatik,
duintasunagatik.

KALEKO KRONIKA

Egunguentian erlojuak besterik
ez du bihotza.

Nortzuk dira solasean doazen bi mutilok?

Nortzuk dira auto blindatuko gizon
uniformatuok?

Nor da leihotik begira dagoen anderea?

Haizeak bere sekretu motelak darabiltza.

Zeozer gertatu behar du, udaberriko
goizik arruntenean,

baina oraindik inork ez daki zer.

AFRIKA IPARRALDEAN

Autorea, Mohamed Al-Kali

Afrika iparraldean ez dago harea muinorik
ez palmondorik ene begientzat.
Behiala nahi beste lore eduki nuen esku artean
eta arranoen askatasun guzia
bihotzean,
orain zelda hertsu honetan zahartzeko.
Amodioa?
Ene bihotza beste bihotzek eritu dute
mila aldiz,
eta oheetan loa kendu didatenak oheetan
lo daude,
eta amets egiten dute, denborak haien
masailak
zimurtu dituen
arren.
Ardaoa? Mahats urak mila bider odol berritu
nau,
ilargia edalontzian sartzera jolasten

nintzen

edandakoak edanda, orain berriz egarriak
itotzen nau.

Gerla? Ezpaten aurrean ez dut sekula atzera
egin,

hori badakite bentzutu
ditudanek

eta bentzutu nautenek, odolez lohiturik dut
besoa

eta ez dut ez garbitzeko ez ahazteko urik
nahikoa.

Kartzela? Kateak daramatzana ez da
zoriontsua,

erdibiturik daukat
bihotza

eta sinetsi ene begietan itsasoan baino
gatz gehiago
dagoela.

Afrika iparraldean ez dago harea muinorik
ez palmondorik ene
begientzat.

Ziega estuko espazioa eta hormak bakarrik.
Bizitza luze bat?

Ez, ez nuke nahi. Gauean basamortuko

haizea sartzen da,
kandelaren sugarra ikaratzera. Harekin batera
nahi nuke
amatatu.

KRABELIN GORRIAK ARMA KANOIETAN

Krabelin gorriak arma kanoietan. Badirudi
iraultza maitasunez ere egin daitekeela.
Krabelin gorriak arma kanoietan ipini eta
iraultza berez azalduko dela kaleetan
haur irribarrearekin, galera latzik gabe,
zapata bat bakarrik galduz esate
baterako,
eta egunkari saltzaileak eskelarik
behintzat ez duela salduko.
Baina gero gauzak bestela gertatzen dira,
oihuak
eta tiroak entzuten dira,
orratz gorriak agertzen dira han eta hemen
airea eritzen,
bolbora usainak bihotzak hertsatzen ditu, eta
zerraldo erortzen dira gorputzak.
Eta beti dago noredonor agerrean edo prest
bere herria ederregia eta krudelegia
delako.

HAU DA UDAGOIENA

Hau da udagoiena—

Ke urdina

tximiniatik gora

larre gainetarantz.

Uda amaierako

hostoak

deus pentsatu gabe

erortzen.

Goiz da oraindik,

baina

bide bazterreko

belar ebakia

odola dariola dago.

Udagoiena heldu dela diote

irratian.

Denbora,

leitzearen leitez,

zahartzen den gutuna da.

GOGOETA MATEMATIKOA

Goizeko ordu 2ak izango ziren
detenitu nindutenean,
beste 2 edo 3 lagunekin.

Non daude
besteak? galdetzen zidaten,
Non daude falta diren
3 edo 2ak? errepikatzen zidaten
? aldiz.

Nik ez nuela ezagutzen beste
inOr,
eta haiek klarionezko X lez
borratuko nindutela.

Zuk 5 bat lagun duzu, 5 ken 2 edo 3
= 3 edo 2,
eta barrabiletan jotzen zidaten
2 + 7 ostikada.

Burua baineran sartu zidaten
n bider,
non eta n euskal nazioak ukanen dituen
herrialdeen kopurua baita,
lehen itoaldia bizkaiagatik, 7garrena

zuberoagatik.

Bizitzaren kontua oinazean

galduko nuelakoan:

2 gehi 3 bider 7 erdi ?

kalkulatzen nuen.

Azkenean alferrik galdutzat utzi eta

273. gelara sartu ninduten

eta orduan hasitako kontua ari naiz

—14, 672, 1189—

osatzen oraindik, gaur, hazilak

1457 egun dituenean.

ERRESISTENTZIA

Arroz salda, tabako, desinfektante,
sarrailen gurin usaina.

Harresiak, harresiak, harresiak, ortzi urdin
hori ere ez da beste harresi bat baizik.

Nork hausten ditu kristal botilak, harresien
ganean kristalezko haginak ereiteko?

Akaso ia ez gara albistea, aspaldian
amataturiko
sutearen hondarra
baizik.

Aberria zer urrun eta zer ezdeus;
izarrak akiturik gure leihoetan.

Barruan dugun mundua ez da kabitzen
barruan gaituen
gelan.

Harrigarria da hemen kurloiei begira
gerla sufritzen dugula
eta, patioaren alde batetik bestera paseatuz,
gerla ematen
dugula.

GOSE GREBAKO
HOGEIGARREN EGUNEAN

Hotzak gaude ilunabarrean, gorputza ahul,
eskuak artega.

Duela hamaika mende kalera irten ez garela,
duela hamaika urte deus ere jan ez
dugula.

Leihoko barroteen bestaldean euria
isilean eta eten gabe.

Beste leihoetan lagunak erdikusten ditut
neu bezala euriari begira.

Zenbat garen? Bat, hiru, bost, zazpi...
Banan-banan
isolaturik, baina asko gara, eta inor ez da
tokatu zaion zeldatik pasatu den
lehena.

Lehenagokoen urratsak jarraitzen ditugu
ia oharkabean,
eta jarraituko dizkigute oraindik, eskolarantz

barrikaden albotik jakin-minez doazen
haurrek.

Hezurretan gaude, min zaharren batek gure
baitan
hezurrezko xirulak jotzen ditu.
Noiz arte izanen da denbora hain amaiezina?
Bueltatuko ote zaigu haragia inoiz
gorputzera?

Atzamarretan indarrik gabe, begiak
lausoturik idatziz,
poema baldar eta tristeak igual bai, baina
koldar leziorik ez diegu ondokoei
utziko.

BAKARDADE GOGOETA

Só sabemos de nós mesmos
com muita confusão

JOÃO GIMARÃES ROSA

Antigoaleko grekoek mikrokosmos
izendatu zuten
eta azalpen edo identifikazio hori onartu da
egunok arte:
gizakia, tamaina tipian, unibertso oso bat
bezalakoa dela.
Batzuetan gizaki bakoitzaren figuran
gainerako jendea ezagutzen da,
delako hori halako etsenplu edo
eredutzat harturik.
Besteetan gizakiaren alde pertsonala,
berezia,
intransferiblea bilatzen da, bakanean ere
kosmos bat suposatuz.
Baina zelan igarri unibertsoaren batasun
eta orden organikoa

gizakiaren bakardadearen osinean,
gelan dena ausentzia,
dena gabezia denean, norbere burua ere
apenas identifikatu ahal denean.

BESAMOTZAREN BESOA

Lekuak zabaltzeko diren ateak guretzat lekuak

zarratzeko,

egunaren irrikatan iragandako gauen ondoren
gauaren zain hasitako egunak,

jan ez dugun ogia urruneko mahai gainean
lizuntzen,

geografia liburuetan ageri ez den herri bat
gure herria,

erori gareneko zuloa hondatzen gaituen
zuloa,

jasotzen ez dugun musua ematen ez ditugun
musuen

osinean

itotzen,

esaten ditugun hitzak esaten ez ditugunak lako
mahats ale garratzak,

ez ditugun ziurtasunak gure ziurtasun
bizi bakarra.

Dena eza, dena gabezia eta dena mingarria

besamotzaren besoa bezala.

ITSASO DEBEKATUAK

I love to sail
forbidden seas
HERMAN MELVILLE

Nondik datoz marinela?
Nora doa ontzia?
Zergatik? Nortzuk dira marinela?
Eta zer da ontzia?

ITSASOAZ GOGOETA

Gure oroitzenak
itsas galeretako
oholak bezala
ez dira
itsas hondoan
ezabatzen,
ez dute inongo porturik
helburu,
gure oroitzenak
itsas galeretako
oholak bezala
ur gainean
limurtuz doaz,
jitoan,
uhinek eraginak,
desegin ezin eta
xederik gabe.

Lar urrun kalatxori hezurrez
osaturiko hondartzak.

ITSASO BAREA

Galarrena edo naufragio

izugarria —esaten da.

Baina ez ote dira izugarriagoak

itsaso bare mutuetako galerak?

OROIMENEKO PORTUA

Imanoli, eskerrekin

Ipar aldeko portu zaharra
ekar dezagun kantara:
kale bustien sentimendua,
edalontzien ikara.

Marinelen hitz arrotzak baina
ginebra onaren dirdira,
gau biluzia sartzen zitzaigun
begi zabalen ninira.

Gau erdiaren eremuetan
labana ahoak airera:
izar isilen argi azpian
odol beroa lurrera...

Txanpon berriez erosi eta
amodioen jokora:
ohe estutan etzuten ginen
itsas-lamien altzora.

Kanta lizunen alegrantzia,
akordeoien tristura.
Ez gara egundo, ai, itzuliko
oroimeneko portura!

ITZULERA

Itsasontziak lehorrera
itzultzen dira beti.

Begira itzazu: uhinek
hondartzara
arrastatzen dituzte ohol zatiak,
maleta irekiak.

JOLASA

Aurrera-dena doa branka itsaso barean,
marinelak karelean.

Bat-batean, begiralearen oihua mastaren
gainetik:

‘Uhin handiak datoz!’.

Pilotuak nabigazio liburua izkiriatzeari utzi
eta lemari eutsi dio,
olatu izugarria jadanik gainean dela. Alferrik,
kroskoa ikaritzen,
gila zartatzen eta ontzia ur-bagaren azpian
alderatu eta iraultzen den
artean.

Orduan, esku erraldoi batek hartu du barkua
airean ura dariola
altxatzeko...

‘Galarrenak eskifaia akabatu du...’ dio haurrak
paperezko ontzi hondatua

begietara jasoz. ‘Ea nabigazio liburua
aurkitzen dudan’, diot,

neuk, antzina, hondartzan hareazko gaztelu eta

paperezko ontzitara
jolasten.

Nabigazio liburuaren eta hurrengo ontzia
egiteko
paperaren bila
itsasertzean...

Marinelak, ontzia, uhina, haurra, jolasa?

Oraina

paper zuria tolesdurarik
gabe,

boligrafo urdina, norberaren eskua, tinta
zirriborroak,

itsasorik gabe,
haurtzarorik gabe...

BESTE MUNDUA

Giltzari beste buelta bat ematen badiote hobe,
ez dadin inor sartu.

Mirilla zelan-halan lausotuko dut
inork ez begiratzeko.

Itzalpean ezkutatu nahi nuke, itzalaren
itzal izan, ezer ez izan.

Baliteke beste mundu batzuk izatea,
hau ez da.

Entseatuko naiz ezerezetik beste bat
asmatzen.

Bila helduko direnean funtzionarioak
giltza-porrak eskuan
eta morroi begiak aurpegian, ez naute
zeldan aurkituko,
itsas atx behelainoen izua zabal dezala
paperotako mintzairak...

Beste mundu bat sortu behar dut
aireango hiria bezain atzeman ezina.

ZUZIAK ETA AIZKORAK

'O Marinheiro' itzultzean

Gela barru honetan, mundutik lekora,
zuziak aizkora bihur ditzaket.
Areago, Fernando Pessoa izan naiteke
edozein pertsona Alberto Caeiro den lez.
Eta itzalen elezaharra konta dezaket:
argiaren aurka errebelatu ziren
eta hor daude orain hertsiduraz akiturik
abrigo zaharren moduan.
Ni ere itzala naiz, zuzi eta aizkora artean,
denborari pasatzen uzten.
Oroimenak gauzak edertzen dituelakoan,
geroan oroitu ahal izateko.

ALTURAREN NEURRIA

Ez zara gehiago izango tente ipini eta, altura
neurtzeko,
burua altxatzen zuen
mutikoa,

Bi astetan hiru zentimetro hazi zinela esango
zizun aititek
eta bazenekien hurrengorako ere
haziko zinela.

Lapitz, boligrafo edo labana arrasto
horizontalak
ikusten zenituen ateko marko
zaharrear.

Ez zara berriro izango joko ondorio gabeetara
jolas daitekeen
umea.

Kartzelara sartzean neurtu zintuzten metalezko
aparatu hartan

Heldu
zara.

Inork ez dizu berriz altura neurtuko. Ez zara
gehiago haziko,

baina zure altura jadanik zeure
eskuetan dago.

Nahiz eta ez den inongo markotan apuntatzen
makurkerien

arteaz zutitzen
direnen garaiera.

GERLA HONDARTZAN

Borrokan ari dira oraindik gerlariak,
odola isuriz,
herriagatik, edo aginduagatik
bakar-bakarrik,
eta badirudi mundua ez dela inoiz
bezperakoa bezalakoa izango.
Baina itsasgorak garbituko du dena
hareetako zauriak soilduz,
eta atzo bezain lau eta isil geratuko dira
bihar hondartzak,
mundu zorientsuagoren baterako,
mutikoek
uraren ertzean maskorrek bil ditzaten,
neskatilek
itsas zalditxoez oroiminik gabeko
ametsak egin ditzaten.

SORTALDEKO ORRATZAK

Lanbroak goroldioa usteltzen zuen,
eta ugaltzen zuen.

Denbora idia bezain astiro zihoan
haranean, astun, kirrinkari, joankor.

Bihotz oneko jendeei orratzak
herdoildu zitzaizkien
sukalde zokoetan azienden eta hirien zoriona
josteko erabiltzen zituztenak,
sortaldeko goiz-oihal gorriak eskegitzeko
usatzen zituztenak.

Jostorratz herdoilduz loturik argitu da
gaur ere eguna.

GURE BEGIEK EZ DUTE MALKO ISURTZEKO GOGORIK

Une charrette de Biscaye a deux
boeufs et a deux roues pleines qui
tournent avec l'essieu dans et font
un bruit effroyable qu'on entend d'un
lieu dans la montagne.

VICTOR HUGO

Gure begiek ez dute malko isurtzeko gogorik
denik eta bizitza bakarra bizi dutelako. Entzun,
astiro doa denbora, idi gorrien gurdi hori.
Begira, erlojuetako orratzak unean uneka
herdoiltzen.

Zenbat gauza utzi dugun estrada bazterretan
edo laku urdinen hondoan, bizitza bakarrean,
eta zenbat aldiz galdu garen behelainotan
basoilar izateko ametsetan dabiltzan
kurloiekin.

Gure desirak ez dira jada habia abandonatuak
besterik

gure bihotzetan. Eguzkia gurpil ahula da.
Ez entzun, ez begiratu, ez pentsatu gehiago,
bizitza hau bakarra delako. Gal ez dadin, ibili
ez
eta sentitu ere ez, harriak lez izan nahi
genuke,
mendea eta bigarrena gurutzatzen diren lekua,
lekua besterik ez izan, urrun deritzan aberrian.

GAIHERDIKO AMETSA

Xiberotar koblak

Gaiherdiko ene ametsian
zü laratzeko sü-garra:
mihi berotan altxatzen zira
hunki ezinezko plazerra.

Bena ametsa deseginik niz
iratzartzen ohantzian:
hotzez ikhara gela hertsian
bakhartarzün ülhünian.

Zü orhitzian, ene maitia,
ametsak oro galdürik:
intxaurra düt eztarrian eta
besuetan eztüt deusik.

ELURREZKO HEGAZTIA DA GURE BIHOTZA, EORANN

Elurrezko hegaztia da gure bihotza, Eorann,
bolborazko loreen gainetik hegatsez Euskal
Herrirantz.

Gure bihotza Bilboko etxe zaharrean dago,
Eorann,

barruan zer dagoen inork ez dakiela, gure
bihotza

mugaldeko edozein larretan tirokatzen dute
karabineroek,

muga iraganez gero neska alaiaren alboan
esertzeko,

gure bihotza Eskiulako laborari mainguaren
kantura doa

hegaztia, hegaztia izan nahirik bezala
aireratuz.

Hil orduko iloba bisitatu nahi duen
amamarekin

dago gure bihotza, eta Leitzako ur gardenetan,
Eorann,

eta beste edozein erreka paperez betetan.

Ilargiari

begira, baina zer axola ilargiari gure bihotza?
Amatatzen ari dira banan-banan argi guziak,

Eorann, gure

bihotza guardia zibilaren kuarteletan kolpatzen
dute

gauero, eta hegazti bilakatzen da ihes egiteko,
Eorann,

eta munduko kantoia amaigabeetan galtzen da
damurik gabe

heroi zaharrak kale izenetan herdoiltzen diren
artean.

Gure bihotza elurrezko hegaztia da, Eorann,
esperantza doi batez airean, eguzkitan urtzear.

Elurrezko hegaztia, Eorann, zeure bihotz
barruan

onartzen baduzu bakarrik ez da
desegin.

NEGUKO PAISAIA

Zer berri ekarri behar diguzue?
Zein da daramazuen sekretua?

Esadazue, hegaberak, zergatik duzue
pasatuala katearen antza?

Noiz arte iraunen du gure esperoak?
Zergatik ez zarete pausatzen?

Bada ipar aldean atsedunik?
Zeren bila zoazte hegoalderantz?

Ezagutzen duzue inon aberririk
oinazearen errekek zeharkatzen ez
duenik?

Nortzuk garen gu? Gibealeko minbiziarekin
bizi garen elur-liliak gara.

ITSAS HONDOKO GOGOETA

Gure gabardinetan gatibatua, lastratua,
bizitza itsasoan murgildu zaigu.
Itsas hondoan, Eorann, ez dago
urretxindorrik, arrama biluziak soilik.
Itsas hondoan, oportu botila eta
blues batzuekin, Eorann, desamodioaren
ohitura honekin, itsas belarrak josten.
Itsas hondoan, Eorann, gainbizi eta
ibili, kristalezko zalditan gabiltza.
Oinatzak berehala ezabatzen dira
itsas hondoan, Eorann, oroitarririk ez.
Eta esperantza, zertarako esperantza,
Eorann, ilargi gazia urrunegi badago.

ELURRA ERORIKO DA GAUEZ

Elurra eroriko da gauez
eta otso itsuak helduko dira.

Elurra eroriko da gauez,
laster ez da oreinik ikusiko.

Artzaina etxolarantz doa,
korrika doa, ekaitza orduko iristeko,
eroa lez doa korrika.

Elurra eroriko da gauez
aztarnen isiltasuna babestera.

Eser gaitezen sutondoan
eta esadazu zelan altxatuko den
hezur zurien artetik udaberria.

INOZENTEEN EGUNA

‘Bisitara deitu dizute, neska bat omen da...’
eta han doa inozentea
funtzionarioengana. Tranparen asmatzaileari
esan diote gero:

‘Bi edo hiru gutun dituzu gaur!’, eta karta
multzora inguratu da,
‘Zu zara zu inozentea!’ diotso burlaz
batak besteari.

Buruera horrekin jaitsi dira gaur patiora:
bestea amarruan harrapatzea,
bestearenean norbera erori gabe. Berehala
hartzen diote engainuari iruditua.

‘Trasladorako zure izena eman dute...’
Egilea susmatzaile:

‘Ez nauzu zakuan sartuko!’ Barre-gura lotu
ezinik
lagunak sinesgabearen inguruan.

‘Asmatzen hasiz gero, asma zerbait
sinesgarriagoa!’

Baina guardia zibilaren furgoia zain dago
inozente hori beste kartzelara

eramateko.

Nor noiz non fida? Ez da erraza inozenteen
jokotik eskapatzea.

Jakinaren ondo gainean egonda ere,
edozertarako dago jendea.

Izan ere, denak dira apur bat gaiztoak eta,
aldi berean, inozente hutsak.

BEGI URRUNEI BERTSOA

Goizean goizik jaiki naiz eta
leiho parean eseri,
begira nago zure begiak
ea non diren ageri,
baina hormetan zehar ez diot
antzik ematen ezeri.
Zure begiak hurbil banitu
haietan nenbilke igeri.

AMODIO PROTOPOEMA

Amodio poemarik xamurrena
izkiriatu nahi nizuke
poeta erromantikoen xalotasun eta
erru gabeziarekin.

Zure zangoak luze-luzeak balira
eta ene zangoak zeureak bezain
luzeak
mahaipetan aurreratuko genituzke zangoak
zangalatrabatzera jolasteko.

Ene atzamarrak, zure larrua ukituz gero,
pospolo antzera izekiko lirateke.
Mundua arrisku larrian jarriko genuke,
gure besarkadagatik ikaratzen

ez dakit zenbat Richter eskalan.

Erdu harresia aihen-belarrak lez eskalatu,
erdu ontziaren kubiartara jauzten den
olatuaren gisan.

Erdu eremu lehorra hondatzera datorren
ekaitza

bezala.

Erdu eta bihur ditzagun hitzak haragia.

Solda gaitzatela bata bestearen kontra.

Horrelako poema zoli bat eginen nizuke,

baina zer laburra den lirikarena.

Leioa zabaltzean, zeldara, zure orde

errealitatea sartzen zait, altzairuzko

atzaparrekin,

garrasika.

GALKORTASUNAZ GOGOETA

Erloju zaharreko harea aleek,
eroriala,
ez dute deus esaten. Argi errainuak bai,
amatatzeko unean dio:
'Betirako asmoarekin sortu arren, bizitza
amaieran da egiazkoena'

Eta luzatu, eta luzatu, eta luzatu
egin nahi luke
ezein baino laburragoa den
azken une hori.

O SENTIMENTO DO MUNDO

Tenho apenas duas mãos
e o sentimento do mundo

CARLOS DRUMOND DE ANDRADE

Não és tu —faculdade de sentir— um espaço
terminado por linhas ou superfícies
e não obstante chove sobre ti na cidade,
as gárgulas sorriem contra a tarde,
a fadista tece com fio de algodão
as suas lembranças, chove nas gretas,
os antiquários mudam de residência
e os pássaros abrigam-se nos fechamentos,
agacham-se fatigadas as folhas amarelas
e não estia, chove no molhado brando
da tua transparencia, teus lábios,
e tudo aquilo que é domínio do coração
encolhe-se no lago, no lago do tempo.

HILARRI IZKRIBUA I

Hala suertatu eta hil banaiz,
goroldio eta lur azpiko
zoko honetara sartu banaute,
hego haizea ene etzan lekura
inola ailegatu ezin bada,
belar sustrai tipien
azkura ere sentitzen ez badut,
bene-benetan hilda banago,
orduan bizitza ez zait
hainbeste axola.

HILARRI IZKRIBUA III

Mundua ezezaguna eta
arrotza da beti,
tipiegiak gara, orain ere
haurrek bezala
kexatu nahi genuke:
‘Hemen hotzak nago, ama!’

HILARRI IZKRIBUA V

Armekin borrokatu gara
gaztetasunak ematen duen
ausardiarekin. Onak eta
okerrak naharo egin ditugu.
Gutariko asko geratu da
bazterretan, hiltzeko gogorik
gabe, lore lehertuen gisan.
Bizi eta galdu dugu,
ametsak erein ditugu
ametsak biltzeko. Bizitza
zikoitza izan da gurekin.
Aldean geneukan guzia
eman dugu eta, dena eman dugunez
gero, ja ez dugu deus ere.

HAU DA ENE ONDASUN GUZIA

Hau da ene etxea, hau da
ene aulkia, hau da ene ohea,
hau da ene ondasun guzia.
Bakardade eta isiltasun
hau da ene jabego bakarra.
Mila jostorratz herdoildu aldean,
leihorik gabeko begirada,
zafrada garratz bat bihotzean,
hauxe da nik dudan guzia:
hilda nagoela esan dezaket?
Amagandik irten nintzen bezala
irtengo naiz endredo honetatik.
Aterik zabaldu ezin eta
—ba ote da hilobi estuagorik?—
funtzionarioen begi kliskak
mirillan igartzean ohartzen naiz
bizirik nagoela.

ZURIAN BELTZA

Zure begietako irla beltzera
igerian ailegatzen ez naizenez
zure begietako zurian poemak
ikazten ditut.

GAUEZ LO EGIN EZINIK

Brodatuaren bestaldea / Le paysage c'est un
état

d'âme / Antzinako

haurra

munduaren tamainako globoa puzten /

Panpinak

hilekoa dariela / Arrainak nasa

gainean /

Como são bonitos os marinheiros / Surik

gabeko

sutondoa / Albiste onak

itxarotea

dentistak hagina kentzen dizun artean / Rj rj rj

/

Sutondorik gabeko

etxea /

Etixerik gabeko bizilekua / Zakurraren belarri

zuloan

gainbizitzea /

Betaurrekoak lurrean / Bizitzen ikasi orduko

hiltzen

ikastea /

Saguak zelda bazterrean rj rj rj / Leku zikina
eta gainera

ilunetan...

Denbora den dortoka hori pasatzen da
pausarik ia egin gabe.

Haren maskorpean bizi arren, haren
aldentzeari

begiratzen

diogu.

Arropa zikinak ikuztokian bezala pilatzen ditut
lerrook pospoloen

argipean,

ea kabitzen zaizkidan heldu den goizeko
trasladoan,

hogeita bost kiloko

poltsan.

Dortokaren maskorra: urteen edalontzia.

Gezala, herdoila,

koralak.

PALESTINAR PRESOA

Palestinar preso bakartiak
irratia darama aldean
eta entzuten du, betiere,
urruntasunaren harrabotsa.
Patio eguzkitsuan paseatzen da
koadratuan zirkuluak eginez,
eta sorlekuko iturrien hotsa aditzen du
aireak dakarkionean.
Ura egunean birritan ematen da kartzelan,
eta egarriak dago,
baina egun sargorian emisora gehiago
atzeman ditzakeelakoan,
dialean xerka dabilela, besoetako zainak
albisteak entzunala
hantu egiten zaizkiola; badirudi odola
ez zaiola gorputzean kabitzen
eta, zainen bat pitzatuz gero
itsaso gorria eginen dela.
Eta palestinar preso bakartia odol
itsaso horretan hondatuko dela,
balaz eta hilez kargatuegi, itsasontzi
lar kargatuen antzera.

ESKLABO ERREMINTARIA

Poeta latinoen imitazioa

Erromara ekarri hinduten,
sartaldeko oihanetan gatibaturiko
esklaboa.

Erremintari ofizioa jaso
eta, aginduak obedituz,
kateak egiten dituk.

Arragoko burdin gorria
nahieran molda hezake,
aitzurak eta ezpatak egin ditzakek
kateak hausteko. Baina hik,
esklabo horrek, kateak egiten dituk,
kate gehiago.

TXINATAR POEMA

Lurraren ikurra. Uraren ikurra.
Bihotzaren ikurra. Suaren ikurra.
Errautsen ikurra. Haizearen ikurra.

ITZULPEN LITERALA II

Lehorrera ailegatu ginen itsasoan
nabigatu ondoren

Sua egin genuen gogoak
berotzeko

Errautsak bertan behera utzita
haizea aldeko joan ginen

ERDI MINA

Jadanik harrapatua, polizien bultzakada
eta kolpeen artean,
amari emaniko azken adioa gogoan,
odolaren zaporea ezpainetan,
sinetsi egin nahi huke.

Biluzik, estekaturik, paparra dena erreta,
ia deseginik,
nafragiorik gupidagabeenean ere
azken eustarria atxikitzeko,
sinetsi egin nahi huke

hik oinaze bidaia horretan heriotzarantz
emaniko pauso bakoitza
hire herriak bizitzara ematen duen
urratsa dela.

PROTOPOETIKA

Gure poesiak ez du inor ilusioz betetzen
desirak ekintza bihurtzeraino.

Gure poesiak, bidazti desarmatua, ez du
armada zapaltzailerik suntsitu.

Gure poesia ez da herriaren haurtzaroko
sutondo solasa.

Gure poesiak, hitz zaharrak lotuz, ez du
gure mintzaira leunduko.

Gure poesiak ez du hitza haragia bihurtzen,
ez du maitalea maitatzera bultzatzen.

Gure poesia zer ezdeusa den, mundua bezain
zabala den sail honetan.

Eta alferreko su hau bihotzean! Gure poesiak
bete ezineko zenbat
eginbide!

MARIONETEN
AITZAKIAREKIN
GOGOETA

Hariren bati loturik gaude beti, bizkarretik
lotzen gaituzten hariak,
oinak erabiltzen dizkiguten hariak, burua
eusten diguten hariak,
oroimenaren hariak, errealitatearen hariak,
desiren hariak,
batzuetan eten egiten dira hariak, korapilatu
eta lardaskatzen dira
hariak, eta hari endredatueta
behaztopatzen gara.

Hala ere —serio paratzen eta filosofo
frantsesa zitutzen uzten
badidazue—
arazoa ez da egiten digutena baizik eta
egiten digutenaz egiten duguna.

Trajedun lodia aitakiro eta gogo gaiztoz mintzo
da

edozein kabaretetan
hildakoen gauza galduen buruz egiak klik klik
klik kokteleko izotza bezala
eraginez.

Zuek, bizirik zaudetenok, bihar edo etzi zer
egin

deliberatzen
duzuenok,
gorde itzazue hilei buruzko zuen aburuak
gibelean, ezer ez
dakizuelako!

Nik ere ez dakit hildakoei buruz deus, bisitan
heldu, isilik egon, eta joan dira,
ez iraultzaz ez beste ezertaz mezurik batere
utzi gabe.

Zer egingen dugu hainbeste gauza
galdurekin?

Utzi egizue poema hau gaua zeharkatzen duen
alarguna bezala pasatzen.

Hildakoak jadanik lurraren
poltsikoetan daude.

VIS A VIS

Arraroa da kanpoan hilean ordu beteko
amodio eskubidea
erreklamatzeko
egiten den ilara.

Edonondik heldu eta errenkadan itxaroten dute
emakumeek,
haien ama-amamek 39an
errazionamendua bezala.

Hiru urtetan lehenengoz dago mutila barruan
katxeoaren zain,

Amodioaren bila.

Arraroa eta ederra da umilazio hori. Urduri
dago,
izerdia bezala dariola
gogartea.

Imajinatzen du bi gorputzen biluztea,
ezezagunen dardaraz

biluzten dira.

Ohearen armazoiaren kirrinka. Eta arropa
lurrean,
zimurturik, ezikusiaarena egiten
duen lekukoa lez.

Arraroa da mutil horrek neska aurpegi bat
behar izatea

bere

burua ikusteko.

Neskari ez zaio ispilurik faltako, pentsatzen du
mutilak.

Eta ez du horretaz
pentsatu nahi.

‘Lekua ez da txarra, ezta?’ esango du neskak
edo mutilak.

Itogina galdarara jausten,
izkribuak horman.

Gurasoak nebarreba bihurtzen direneko gelak

bezain ona da.

'Ondo zaude?' 'Badakit ez nizukeela hau esan
behar,
baina jakin
behar duzu...'

Pozgarria izango da, poza inoiz negar anpulu
batzuek

zipriztindu arren.

Arraroa eta ederra da amodio eskubidea
eskatzeko ilaran

zain egotea,
buruari bueltak ematen. Biluzteko agindu dio
mutilari

funtzionarioak.

Arraroak da tinbrea, hasten hasi denaren
amaiera

anuntziazten bezala.

ESPERANTZA

Lasciate ogni speranza,
voi ch'entrate!

DANTE ALIGHIERI

Gauzak ezkututzen trebea zen, eta
beti aldean zeramán arren
funtzionarioek katxeoetan ez zioten
atzeman egundo.
Ez zen izkribu politiko
arriskutsua,
ez errebista pornografiko
eskuz dastatua,
ez ihesbidea zulatzeko
tresna baliotsua.
Guk bagenekien aldean zeramana
esperantza zela.
'Baina zer da esperantza?'
galdetzen genion.
'Heltzear den zori onaren seinalea'
zioen batzuetan irribarrez.

'Hor patio ertzean hazten den lorea'
zioen bestetan, trufaz.
Gaur, 'itxarotea' dela esan du.
Esperantza
egunik egun itxarotea besterik
ez dela.

HEMEN GAUDE ETA JARRAITZEKO ASMOAREKIN

Igual hasieran bertan ekibokatu ginen,
mundura euskaldun sortzean.
Gero ez genuen independentzia eta iraultzaren
borrokatik apartatzen jakin.
Eman dezagun: esna kantu bat abestu genion
gure aberriaren sehaska hutsari.
Eta goiz batez El Puerto de Santa Maríako
kartzelan esnatu ginen.

Zorionez edo zorigaitzez, anitz euskaldun
ekibokatu ekarri gintuzten
Espainiako azken ipurdi honetan bizi edo
hiltzera.
Bizi, ozta-ozta gainbizi gara, estu,
larri, ia mirariz.
Eta bizitza ez da guretzat lehen zen bezalakoa
harrezkero egundo izango.

Begirale uniformatuek ehortziko gaituzte
zulorik urrun eta ilunenean,

idazkari ordainduek borratuko dituzte
gure urratsak.
Baina ekibokatuaren ohitura eta
ausardiarekin
zin egin dezakegu: maite genituen gauzengatik
erori ginen
preso,
baina gure maitasuna oraindik
ez dago preso.

HAIKU II

Jainkook otoi
Ez zaitezte sar gure
Bizimodura

HAIKU IV

Haizea dator
Gure ileak nahasi
Eta badoa

POST SCRIPTUM

PRESO EGON DENAREN GOGOIA

Preso egon denaren gogoia
kartzelara itzultzen da beti.
Kalean juje, fiskal eta
abokatuekin gurutzatzen da,
eta poliziek, identifikatu ez arren,
beste inori baino gehiago
begiratzen diote, haren pausoa
sosegatua ez delako
edo sosegatuegia delako.
Haren bihotz barruan
betirako kondenatu bat dago.

[1986]

LAGUN PRESOAK

Iraultza ala hil izkiriaturen dute, esposaturik,
furgoi berde ilunen barruko aldean,
Anjel / Mitxel / Koldo / patioetako ibilaldien
urratsak entzuten dira,
mundua patioa balitz bezala, Joserra / Miren /
Josu /

haien amodio antsia
oztoporik eta bazterrik aurkituko ez duen
uhina lez entzuten da.

Julen / Ixidro / Mertxe / arrazoi sakonak
entzuten dira,
hizkera sekretuan, Julio
/ Iñaki /

Pakito / atear kolpatzen dituztenean, han eta
hemen

entzuten da,
mundua galeria zarratu hori besterik ez balitz
bezala.

Apolinar / Josean / Andoni /
haien oinaze isileztatua nahinon entzuten da,

Itziar / Jon /

Josemari / euskal preso guzien sakrifizioa
eta duintasuna ikusten da
kristal
bakoitzaren bestaldean, aberriaren astuna
paparrean
papagorriek bezala
daramatela.

[1986]

JOSEBA ASENSIO

Registrándole, muerto,
sorprendieronle en su cuerpo
un gran cuerpo, para el alma
del mundo.

CÉSAR VALLEJO

Sekula hil behar ez balitz bezala
bizi ginen.
Presa genuen estimatzen genuenaren alde
bizitzeko: amodioa, borroka armatua,
libertatea, liburuak leitzea. Baina, agian,
ez genituen lerro guziak ondo
konprenitu,
pasarte hau adibidez: estimatzen genuenagatik
hilko ginela.
Hiltzeko gogorik gabe, gorputzak jostailu gisa
arriskatu
genituen.
Beti, egunak beruna bezain astiro zihoazenean
ere

presaren guren,
estimatzen gurenen alde ekiteko
presaren guren,
lurrak, berekoi, gu estimatzen gintuela jakin
gabe,
lurrak ere presaren zuela igarri
gabe.

[1986]

MIKEL LOPATEGI

‘Iragana’, ‘oraina’, ‘geroa’, ‘dena’
zauri zornatsua egin zitzaionean
hitzak galdu, ‘zelan’ eutsi ordez
‘zertarako’ galdetu
eta suiziden lengoaia mutura
lerratu zen...

‘Oroigarriak’, ‘euskal kantik’, ‘erneguak’
‘maite zaitut’ guziak
—bulto guti ziren denera ere—
maindire zurian bildu
eta mina abrigo zahar gisa jantzirik
abiatu zen.

Eta atzean utzi zituen gure lengoaia
arrunteko hitzak;
hara hemen atzamarren artetik harea fin lez
galtzen zaizkigula.

Gure artera bueltatuko zaituen hitzik
ba al da?

Finean, hitza, hutsik geratzen den zelda
besterik ez da.

[1988]

KIROFANOA

Izugarri gogorra izan zen.

Mahai gainean
biluzik etzanarazi zuten, gerritik gorakoa
ertzetik kanpora,
eta polizia bat belaunen gainean
eseri zitzaion.

Orduan urdailean kolpeka, barrabiletan
kolpeka,
saman karate kolpeka, buruan telefono
aurkibide sendoaz kolpeka.

Gero poliziek zigarro bana biztu eta
ketik kera
oin zolak erre zizkioten, zangarteak
erre zizkioten,
eta lau zigarrokinak bere bularrean
amatatu zituzten.

Gero telefono aurkibideaz buruan joka hasi
ziren

berriro gong-gong-gong
eta burua handitu zitzaion, ezin zuen
arnasarik hartu,

begiak hertsu zituen nano saldoek bere
gorputz gaztelua asaltatzen zuten
artean,
mendetako lurrikarak, katu hilak zainen
labirintoan,
egunsenti zurbilak odola
galtzen...
Ilargirantz aldentzen zen txori itsuaren
atzaparrak oratu zituen.
Behin eta berriro jo zuten orduan
eraman ezinezko moduan
eta oraindik ere —gaur egun— gupidarik gabe
jotzen
dute.

[1990]

EGUNEN BATEAN

Egunen batean mundua leunagoa
eginen da gure inguruan
eta nahinorantz abiatuko gara
nahieran,
eta maite ditugun lagunak
besarkatuko ditugu,
eta den edaririk bizigarriena
edanen dugu,
eta legeaz landako gure mintzairan
solastatuko gara,
eta munduko andere guziekin
oheratuko gara,
eta hamaika urteren ondoren lehenengoz
—gorrotoaren kortesiaz—
diosala eginen diegu kartzelan utziko ditugun
funtzionarioei.

[1990]

ASPALDIAN UTZITAKO ZELDA

...et je n'entendrai plus
les verrous se fermer sur
l'éternel reclus

ALFRED DE VIGNY

Jakin nahi nuke nork betetzen duen orain
nik utzitako zelda.

Ea endelegatzen duen hormako izkribu tipia:
'Eroria burrukara'.

Ea alboko zeldatik inork hots egiten dion
komuneko plastikozko tuberia soltatuz
telefonoz bezala mintzatzeko.

Ea hango egunak eternal dirauen, gauak
izotzezko,
egunsentiak esne garratza
diren.

Ea errekuentoan mirillatik so egiten duen
begiak /

surveillir et punir /

inor ikusten duen edo jadanik inor ez /
denak ala inor ez.

Jakin nahi nuke ihes egin genuenok
benetan ihes egin genuen

ala ihes egitearena bizitzen irauteko
aitzakia hutsa izan zen.

[1991]

XI. GUTUNA

Hitzik gabeko gutuna izkiriatu nahi nizueke,
zuen nahirik tipierna bete.
Gehiena esanda dago eta zer lotsagarria den
errepikan hastea
batez ere hitzek esan nahi dutena geroago
eta gutiago diotenean;
alemanezko hitz ikaragarriak ere ez omen dira
erabat
zehatzak.

Polizia, bankero, ugazaba eta apezak
'terrorista' esaten dizuete,
eta are barregarriagoa bestaldeko jendea
'heroi' deitzen,
zuei, estatuen harri gatibutza inola
ametitzen ez duzenoi,
libertatearen aldeko borrokan libertatea
galdu duzen giza zatiori.

Hemen eguna odolusten ari da
hodeiartzean

zauri sakon bat bezala, nork daki
sendagarria den.
Guk beti bezala jarraitzen dugu, lore
eta bolbora artean,
metafora eta logistikaren artean, Karl Marx
eta andere biluziaren artean.
Gauza bakoitzak bere zailtasuna,
batzuetan musu bat ematea
etsaiaren kuartel jeneralean lehergailua
jartzea baino zailagoa da.
Zuen askatasuna behar dugu, gauza zailak
elkarrekin egiten jarraitzeko.
Gure herriaren gorputz galdua bilatzea,
esate baterako.
Zuen askatasuna behar dugu, libre gaudenok
libreak izateko,
giza jendeak berez haragian itsatsiak dituen
kate luze eta ilunekin
libre izan gaitezkeen neurrian
behintzat.

[1991]

AUTOBUSA BIDEKO JATETXE BATEAN GELDITU ZENEAN

Autobusa bideko jatetxe batean gelditu zenean, Otxarkoaga eta Berangoko ama birekin suertatu nintzen mahaian afaritarako.

Senitartekoen autobusak gauez egiten du Puertotik Euskal Herrira eta orduan ez nekien lortutako *Baimen bereziaren* barruan agindutakoa baino minutu bi gehiago, adiskideei buruz, liburuez edo zinemaz berbetan jarduteagatik Joseba berriz zeldetara zigortu behar zutenik. Artean 83an ginen.

Ordura arte bezala gerora ere etengabea izan da Joseba Sarrionandiaren emaitza. Halere urteak iragan dira garai haietatik eta oro har kartzelari buruzko poema liburua osatzeko erabakia hartu duenerako. *Kartzelako poemak* honetan ematen direnetatik erdia edo orain arteko beste liburu eta argitalpenetan topatzen ahal badira ere, egilearen ukitu berriekin datoz eta

gaiaren inguruan luzatzen diren poema argitara berriekin batera eman nahi izan ditu, lehenengoz.

«Mezua deitzen den horren aurrean zalantza handiak ditud jeneralean» esan du Joseba Sarrionandiak eta liburu honetan inplikatu egin da halako osotasun tematiko bat hautatuz, akaso beste edozein baino gaitzago zaion kartzelako honen inguruan. Batzuetan egoeraren interpretazioraino ere helduz, oihartzun literarioez beterikako poemak dira hauek. Autoreak urteotan erdietsi duen berezko berba eta imajinarioarekin liburu honen lekukotasunak, testigantzak, idazlearen menera jarri dira bere ahotsa emanaz poemak hurbiltasun ia fisikoaz eta askotan modu arrunt gordinean luzatzen digun munduari. Bere ahotsa emanaz preso egon denaren idazlearen munduari.

Baina ez zaigu hargatik komeni ahaztea egileak beti edukitzen duela obra helburutzat, sartu bide diren bitarteko guztiak onerako dituela baldin eta xede horrekin bat egiten badute.

Kartzelako poemak hau, urrunetik ailegatu den liburu hau, Joseba Sarrionandiaren biogra-

fiaren aldi ezagunenetik hurbilen duguna da. Hain hurbil gutako askorengandik non urteotako literaturan bereizi ezina bilakatu den hartaz ari den: kartzela, oinazea, heriotza... Non dago honi buruzko urrezko metafora?

Josebaren testuak, hain gustuko dituen baporeen antzera, euren kasa nabigatzen dira beti, galarrenaren ikara barik, irakurleari desio duen ur ildo utziaz.

RUPER ORDORIKA
1992

HUNKIGARRIAK, LATZAK, ZAILAK IRENSTEN

Poema hunkigarriak, latzak, zailak irensten, grabeak, garratzak, gordinak... ez dago inolako duda izpirik horretan, Sarrionandiak eskaintzen dizkigunak, oraingoan. Seguruenik, irakurlea, liburu hau amaitu ondoren, ez da hasterakoan zegoen bezain sosegaturik eta lasai geratuko. Zerbait irauliko zaio barruan eta handik aurrera irudituko, bera ere zelda batean entzerraturik bailegoen, oraindik esku artean daukan liburu hori kate astuna bihurtu zaiola.

Nolabait sailkatzekotan liburu hau poesia generoan, soilik, sartuko luke norbaitek, besterik gabe. Baina bada hori baino askozaz gehiago ere, onerako edota txarrerako, liburu honek genero eta azpigenero ugariak biltzen baititu. Liburu hau, poesia izateaz gain, historia ere bada, eta autobiografia, eta memoriak dira, eta testigantza aparta eskaintzen du, eta salaketa kru-dela egiten, eta kritika akuilagarria burutzen...

Gainera, liburu latz eta zirraragarri honi tanta garratz batzuk gehitu beharko zaizkio, irakurle askoren kasuan behintzat, bere egilea ezagutu eta gero: oso bestelakoa baita liburu baten idazlea ezaguna edota oso ezaguna izatea, ez baita gauza bera idazle hori oso laguna izatea eta jakitea hainbeste nozitu duela eta, agian, oraintxe bertan ere ari dela sufritzen...

Eta sufrimenduarekin loturik liburu honen irakurlea ohartzen da Sarrionandiak behin baino gehiagotan aipatzen duela Dante eta honen Infernu ankerra, *La Divina Comedia* obratik honaino ekarria. Batean «Hona sartu zaretenok, ahaztu ezazue esperantza oro» famatu hura birgogoraziko digu eta beste batean, Infernuko ataletik XX. Kantua ekarriko digu gogora... Eta batek baino gehiagok, halako aipamenak irakurri ondoren, pesimismo kutsu aparta iritziko dio, agian, Sarrionandiaren liburu honi, hori ere, ezkorra, bai baita obra hau.

Zera argitu behar da honen gainean, Dantek Infernuko XX. Kantuan aztiak eta igarleak aipatzen dituela. Bertan kondenaturik daudela aztiak, eta isilik ari direla negar batean, bereziki

haietako bat, Anfirao, gehiegi samar saiatu zela-ko etorkizunean begirutzen.

Orduan norbaitentzat eta bere iritziz, pessimista samar azaltzen bada honako liburu honetan Sarrionandia, pentsa dezagun, une batez, bera ere aztia dela, eta aztiekin eta igarleek sarritan ez dutela asmatzen (Dante dixit). Eta, idazle klasikoaren esanarekin berpiztu eta animaturik, posible dela oraindik, zulotik begiraturaz, argi izpi bat antzematea, gero eta handiagotzen joango dena, horrela aztiekin, ez asmatuz, huts egin dezaten eta denok esperantza berriz ere geureganatu dezagun.

JOXEMARI ITURRALDE

1992